

OSASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Haur txikien inmunitate-sistema murriztua da eta horregatik helduak baino samurrago gaixotzen dira. Haurrak, gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak eskatzen ditu, alegia ikastetxeek eskaintzen ez dituztenak. Horrela, gaixo-aldian eskolaratzeak atzeratuko luke sendatzea. Haurra gaixorik dagoenean etxean zaindu behar da, gaixotasun egoerak eskatzen duen arreta, atsedena eta zaintza egokienak etxean ematen direlako.

- **Haurra noiz EZ DA eraman behar ikastolara?**

1. Zentzuak hala esaten digunean.

2. Ikastolan eman ezin zaien zaintza behar duenean edo ikastolako ekintzetan egoki parte hartzeko moduan ez dagoenean.

3. Besteak beste, honako sintoma hauek dituztenean:

- Sukarra edo febrikula. Baina, nola definitzen da sukarra?

TENPERATURA NORAMALA: 37 gradutaraino besapean.

FEBRIKULA: 37 eta 38 gradu artean.

SUKARRA: 38 gradutik gora.

24 ordu sukarririk edo febrikularik gabe egon ondoren eraman daiteke ikastolara.

- Arnas zailtasuna eta/edo eztlul iraunkorra (ez bada katarro arrunta).

- Suminkortasuna (negar kontsolaezina).

- Gorakoa.

- Hauetako gaixotasunen bat duenean:

- ❖ Beherakoa: kaka normaldu eta 24 ordu igaro ondoren eraman daiteke ikastolara.

- ❖ Konjuntibitis zornetsua (begiak gorri eta jarioa): tratamendua hasi eta 24 ordu igarotakoan eraman daiteke ikastolara.

- ❖ Infekzioa azalean (inpetigoa).

- ❖ Exantemak (mantxak azalean), aftak eta eskarlatina.

- ❖ Zorriak (tratamendu gabe).

- ❖ Hazteria, barizela, kukurruku-eztula, elgorria, hazizuriak, tuberkulosia,

A hepatitis.

- ❖ Pediatrak edo zentzuak gomendatzen duen beste edozein egoeratan.

- **Noiz itzuli daiteke ikastolara?**

Lazkaoko pediatria sailak emandako aholku eta dokumentazioan (Gipuzkoako osasun publikoko epidemiologia unitateak ikastetxeetan infekzioak kontrolatzeko diseinatutako gida) oinarrituta etxeratze-aldiak finkatu dira zenbait gaixotasunen aurrean:

1. Barizela: Puslak lehortu arte eta, gutxienez, erupzioa hasi eta 5 egun igaro ondoren.

2. Errubeola: exantema hasi eta 6 egun igaro ondoren.

3. Oin/esku/aho gaixotasuna: pediatrik alta ematean.

4. Inpetigoa: zauriak lehortu edo sendatu arte, edo antibiotikoa hartzen hasi eta 48 ordu igaro ondoren.

5. Elgorria: pediatrik alta ematean.

6. Lepamina: pediatrik alta ematean.

7. Hepatitisa: analisisien normalkuntza eta pediatrak alta ematean.
8. Eskarlatina: botika hartzen hasi eta 3 egun igaro ondoren.
9. Tuberkulosia: berriro eskolara joateko medikuaren baimena beharko da, bertan kutsagarritasun-eza adierazten delarik.
10. Gripea: erabat sendatu ondoren (gutxienez 24 ordu sukarrrik gabe).
11. Kukurruku-eztula: antibiotikoarekin hasi eta 5 egun igaro ondoren. Tratatu gabeetan 3 aste.

- **Medikazioari dagokionez:**

Gaixotasun iraunkor ez kutsagarriengarik, haurrek mediko-tratamendua behar izanez gero, eta botikak eskola orduen barne hartu behar badituzte, gurasoek hezitzaileari eman beharko diote pediatraren errezeta, zeinetan dosia eta hartze-orduak azalduko diren. Botikak 8 ordutan behin edo gehiagotan hartu behar direnean, guraso edo gurasoordeek eman beharko dizkiote, ikastolan sartu eta irtetzerakoan.

- **Elikadurari dagokionez:**

Haurren batek, gaixotasun bat dela medio, dieta berezi bat behar izanez gero, gurasoek medikuaren informea aurkeztu beharko dute, bertan haurraren jaki-zerrenda zehaztu eta horren zergatiak azalduko direlarik.